ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2019ko abuztuaren 9a, ostirala • 91 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2019ko errolda

Jarduera ekonomikoen gaineko zerga ordaindu behar duten guztiei jakinarazten zaie ondoko toki hauetan egongo dela ikusgai zerga horri dagozkion 2019ko zergadunen errolda, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera:

Udalaren kuotak: dagozkion udalean.

Probintzia eta estatuko kuotak: Arabako Foru Aldundian.

Zergadunek egoki jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dizkiote, errolda jendaurrean jarri eta 15 egun balioduneko epean, zerga kudeatzen duen erakundeari edo, bestela, Arabako Lege eta Administrazio Erakundeari.

Halaber, iragartzen da jarduera ekonomikoen gaineko zerga epe hauetan bilduko dela:

I. Ordaintzeko epea.

a) Borondatezko epea: udalak 2019ko irailaren 1a eta urriaren 31 bitartean bilduko du jarduera ekonomikoen gaineko zerga.

b) Premiamendu epea: 2019ko azaroaren 1etik aurrera, administrazio premiamenduko betearazte bide administratiboa hasiz eta dagokion errekarguarekin (Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 28. artikulua).

II. Ordaintzeko tokia eta modua.

a) Aurreko urteetatik ordainketa banku erakundeetan helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, helbideratze kontua aldatu ez badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

b) Helbideratu gabeko ordainketak: ordainketa bankuren batean helbideratuta ez daukatenek udal bulegoetan baino ezin izango dute egin borondatezko epean.

III. Gomendioak.

Bankuko helbideratzeen alta edo aldaketak, zein interesdunei jakinarazpenak egiteko helbideen aldaketak, Aguraingo Udalaren bulegoetan izapidetu beharko dira.

Hori guztia jakitera ematen da jende orok jakin dezan.

Agurain, 2019ko uztailaren 29a

Alkatea
ERNESTO SAINZ LANCHARES

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.08.09 05:43:03 Z